

Gure erakundearen bezero nagusiak emakumeak dira, zerbitzua ordaintzen ez duten arren. Gurekin lan egingo dutenak indarkeri matxista sufritu duten emakumeak dira, hamar urte baino gehiago dutenak eta Araban bizi beharko dira, baldintza bakarra euskara edo gaztelera jakitea da, ezin dugulako gure zerbitzuak beste hizkuntza batean eskaini.

Tailerretan ekoizten ditugun produktuak saltzen ditugunez bigarren mailako bezeroak ere ditugula esan dezakegu. Gure bezeroak, emakumeekin tailerretan egindako produktuak erosiko duten pertsonak dira, arazoarekin kontzientziatuta dagoen jendea, alegia. Edozein adina, genero eta nazionalitate duten pertsonak izan daitezke. Online salmenta egingo dugunez, bezero hauen jaioterri eta lokalizazioak ez du garrantzirik.